



Esp.kodea: 2023PHEL0005
Titularra: OZMA

Gaia: 2023ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko programa: Ofizial elektrikaria

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPEN A
Ofiziala (elektrikaria)	Elektrikarien lan taldearen ezohiko lanetarako errefortzua	% 100	5 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kontratatutako pertsonak langabetuak izan behar dira, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailer gisa alta egon, bai hautagaitza enplegu-eskaintzatara bidaltzen duten momentuan bai kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.
- b) Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- c) Ezingo dira kontratatu 2022ko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdietan edo 2022ko ekitaldirako Gazte Enplegu Euskadiko EGF Plus 2021-2027 programa operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatzeke laguntzen deialdietan kontratatuak izan diren pertsonak.
- d) B gidabaimena.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiak egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko teknikari bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat



Esp.kodea: 2023PHEL0005
Titularra: OZMA

Gaia: 2023ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko programa: Ofizial elektrikaria

- Udal funtzionario bat, ordezkari batzordearen proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- 55 urtetik gorakoa izatea: 5 puntu
- Luzaroko langabeak: 5 puntu. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailerik gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- Lan eskarmentua: elektrikari lanetan egindako hilabete oso bakoitzeko 0.5 puntu, gehienez 5 puntu. Lanaldi partzialean egindako lanak jardunaldi osotzat joko dira.

- **Probak:**

- *Proba teoriko-praktikoa:* lanpostuaren funtzioekin lotutako proba teoriko-praktiko bat edo gehiago egingo dira. Ahoz, idatziz edo/eta praktikoa izan daitezke. Gehienez 50 punturekin baloratuko da eta Epaimahaiak aldeztu aurretik erabakiko du proba bakoitzean lortu beharreko puntuazio minimoa aurrera egiteko.